

asco, edo itcen erdiac ezjateac, baicic Libruan dagoen bezala, guzia aozesateac. Naspilla gabe, ta garbiago da onetan Eusquera: eta Izquera obeto eguiña, edo perfeccio gueiago duena ori da. Esan dan gucia Eusquerac orobat Jaungoicoaren gauza altu andietan, nola emen beco, edo bestelaco jaquiñetan, bere erreglaquin, osoro ta ederqui gordetendu. Ta ori da, ta ez besteric eguiatzco Erretorica edo eloquencia eguiñ eguiña bera.

Gaberdi illun batean, ta arantzaz alde gucietatic betericaco bide batean bezala Euscarā, edo Euscaldunac cebiltzan: ta A. Larramendi, berari bacarric cegoquion ausardi justuaz, beargai, edo irteciñ onetan sartuzan. Guizon baten ezece, ascoren diña zan eguitecoric gaitcen onetan, berariazco, ta berezquirozco Jaungoicoaren argui, ta doai gabe, Aita Manueli berari esan izan diodan bezala, ez berac, ta ez bestec ecin gauzonic eguingozuen. Alere bere edadearen lorean gucia ben-citu, ta gucia eguin zuen.

Bañalangogor onetan A. Manuelecartu-cituen neque latz, eta garratzac Gure Provincia guciz Noblearen gloriagatic bacarric izan etciran: gorago, ta altuago beguiratcen zuten. Esan nai det, beñ ta berriz berac dion bezala, Jaungoicoaren onrari ta animen

D

onari begui-

beguiratcen ciola, eta ori aren neque-
gucien azquen fiñ, eta coroa izanzala:
Gure Jaincoaren Lengoage bici bacar
au animen salvacioraco landu, ta poliqui-
tcea: onetan bere aleguiñaz aleguin du, edo
esmeratuzan, ta Jaunaren Dotrina, ta
Leguea bear bezala eracusteco bide zuten
segurua berac aguertu, ta arguituzuen.

Ceruco Maisu, edo Jesu Cristo beraren
eguiteco Jaincozcoa da ceruco bide, edo
Dotrina, Fedea, ta Leguea ezdaquitenai
ondo eracustea: Jaungoicoa ezagutu, ta
amatu dezaten arguia, ta escua ematea,
Eguiazco, ta ceruco Erretoricaren erre-
gla ederraquin au eguiteco, urrengo avi-
soac Maisu Euscaldunac gorde bear ditu.
I. da.

Nolaco erreverenciaz Dotrina artu bear dan.

Jaungoicoaren itza ondo icasteco, ta
eracasteco, esan. ta enzun bear da. Baña
nola? Au bear bezala ezagutu, pisatu, ta
esaminatceco, ni sator itsua naiz, ta bes-
teac nere lagunac: ceruco urreguille, La-
pidario, edo artisjaquin linceagoa bear de-
gu: Beste Agustin bat, edo Maisuen Doto-
re, Dotoreen Maisu, ta Eleizaco ceruaren
Eguzqui argui eder munduco Icasle gu-
cien Eracasleric jaquinsuena: onec, iñorc-
ez bezalaco lecioac ematen dizquigu, ta
Jain.

Jaincoaren Itzac cembat balioduen eracusten digu. Ta. S. Agustin batec cer dio?

Lecu batean Santuac dio, Jaincoaren Itza, ta Dotrina ceruco arriric, ta perlariac preciatuenac, ta urrezco circilluac bezala dirala. Hom. 26. ex 50. Beste sermoi batean Jaincoaren Itza, ta Jesu Cristoren Gorputza balio, ta estimacio berdin batecoac eguitenditu: ta argatic dio: » QUANTA SOLICITUDE, nola erreparo, ta erre-
 »verencia al dan andienaz Jesu Cristoren
 »Gorputza, comulgatcean artcen degun:
 »TANTA SOLICITUDE OBSERVA-
 »MUS, ne Verbum Dei, quod nobis eroga-
 »tur, dum aliud, aut cogitamus, aut loqui-
 »mur, de puro corde deperiat: ala, ta neurri
 »artan bertan Jaincoaren Itza artu, enzun
 »ta gorde bear degula. Ta Cristoren Gor-
 »putza ei respeto gabe artcen duenac
 »baño Jaincoaren Itza arreta gabe artcen
 duenac culpa guchiago ezduela.

II da. *Dotrina eracusteco nola prestatu bear dan.*

Ala Bizcaian, nola emen celo andico Sacerdote Jaun, ta animen Artzai Lecio au ondo artcen dutenac dirala badaquit. Oien bere Dotrina, Itzaldi, edo Sermoi ac Eusquerac escribitcen dituzte. Alafede nequea da; baña neque guciac amorioac vencilcendu. Itcez esan, edo eracasi nai dutena contuz onela escribi-

tcea, ascorentzat chit erazco, conveni dan
videa da. Bacoitzac bere erricoaquin itze-
guin oi duen bezala, bere erara lenago pa-
perean ezarri, contuz echean, nai bezala,
iracurri, taguero Pulpituan errespeto an-
diagoaz, errazago, gogoticago, ta biciroa-
go esangodu.

Gaztelaco Eleiza ascotan aguinduric
dago, ta guizon jaquinsuac ere Libru, edo
Paperic Pulpituan esan ta Dotrina eracus-
ten dute. Munduco esamesac oñperatu,
ta gure Euscaldunac ere au eguitea obe
litzaque: obeto milla bider esan, ta frutu
gueiago ateraco litzaque. Onela guciac
berdiñ, ta gucien nequea arinduco litza-
que. Onetan nic dacusdana, ta juiciozco
persona aditu ascoc diona, da, Jesusen
Biotceco Platica, edo Dotrinac chit eder-
qui iracurten, gustoz, ta devocioz enzu-
ten dirala. Gauza arguiago, ta obeago-
ric, oriec baño, Pulpituan esaten ezdala,
ascoc senti dute, ta esan oi dute. Ori gu-
ciac chit claro, ta contentuz aditcen dute:
Lecioa eguitenduenac Paperetic errazago
iracurtendu. Paquez, ta soseguz beti Do-
trina, ta albait ere asarratu gabe, obeto
aditu, ta biotzetan sartucoda; eta ori Eus-
queraric al dan jaquiñen, ta claruenean.
Gure Fede, ta legue santuac, ta Jaincoac
naien dituen Dotrina gaiac, edo asuntoac,
eta enzunle, edo auditorioac bearren ditue-
nac.

nac, dirade, gueiena, Cofesio ta Com unio gaizqui eguindacoen gañean: eta ori bear dan esamen concienciacoaren faltaz, edo lotsaz, ta maliciaz pecatuac ez ondo esanaz, edo penitenciac ez cumplituaz, biotceco damu, ta are ascoz gueiago eguiazco proposituaren faltaz; nola pecatuen bi-detic ez aldeguñaz. Confesio, ta Comu-nio asco chit gaizqui eguiten diran.

Batzuetan, nola ondo confesatu, ta frutu andiaz comulgatu bear dan: nola Jaunari gracia eman, ta cer dembora artan escatu bear zaion: cer fede, errespeto, ta devocioaz Mezatan, Santisimoaren aurrean, ta Eleizetan egon bear dan. Besteetan, juramentu, birau, ta maldicio, ecin icusi, aserre, gorroto, ta etsaiak ez barcatu naiaren gañean, edo gaitz iriztez, edo de-seozco pecatuen gañean: egemplo gaizto, edo beatztopa, ta escandalo, tabernaco, jococo egoera luce, ta edaleen grina itsu, araguzco gusto itsusi, jolas, edo ibillera torpe, itzqueta, edo deseo galduen gañean; eta bacoitzari berea, ostu, edo gaizqui quendu, edo artua, aldian pusca badere biurtceco obligacio estua, ta orretara bereala asitceco bideac.

Dotrinaren puntu chit bearrac dira, umeac Jaincoaren bildursantuan acitceco legueac: Guraso, ta familia buruac orie ondo zucentceco

tceco, eta umeen Gurasoaquico amorio, obediencia, ta errespetoaren obligacioac: Dotrina icasi, ta eracustea. confesatcera bialtcea, lagun onaquin ibilli, ta goiz echeratcea, echeco paquea, ta elcar ondo artu, ta icustea: bere, ta echecoen estura, gaitz, edo nequeac pacienciaz, ta Jaincoaren icenean ondo eramatea: nola orietan Jaunaren erregalo, ta gorañtci gozoetan bezala, aren borondatea eguitea, Jesus onaren ceruraco bide erreal segurua dan: nola gure dicha gucia, gure borondate ucatu, autsi, ta ez ori, ezpada Jaincoarena eguitean dagoen: bacoitzac bere estadu, ta bicimoduco gurutce, ta carga amorez egunoro artu, ta Cristori gogotic jarraicean dagoen. Eta au Jesus beraren Dotrina, egunoro bearren deguna, ta egunoro eracatsi, ta predicatu bear litzaquena da.

Onetaco gai guciz Jaincozcoa da S. Juan dicipulo amatuac egunoro, ta beti aoan, ta biotcean cecarren Dotrina: Jaincoaren umeac, elcar amaezazute: nola caridade onezaz Legue santu gucia cumplitcen dan, ta Jaincoaren alaba estimatuen, ta maiteena nola Gueide, edo Progimoaren amorio au dan: zuretzat naidezun guztiazure progimoari zuc eguitea: ta zuretzat, edo zuri iñorc eguitea nai ez dezuna, zure gueideari ecertan zuc ez egui-

eguitea: nola Jaincoac emandizun neurri, ta erregla bacar justuena dan. Zure lagun urcoarentzat zuc beti biotz beraa iduquit- cea, ta animaraco, ta gurputzeracc alde zun ongucia ari eguitea, Jaincoaren ceñ marca ederra dan, ta Jaincoaren Biotzaren antce- coa nola zurea ortic eguitendan.

. Azquenic, nola Misericordiazco obra, limosna, ta besteac pobreai Jaincoaren icenean, edo amorez eguitea, ceruraco on- dasun andiac biribillatcea, ta Jesus-en Bio- tcean gordetcea dan: eta bere Evangelioan dion bezala, azquen juicioa egunean, Mi- sericordiazco obra oietatic, bear bezala e- guin, edo ez eguiñetic, onai, ta gaiztoai, ceruco, edo infernuco sententia Cristoc nola emangodien. Orduan gucienzaco Juezaren pagabide, edo Arancel berdin justua, Misericordia izangoda.

Gucien Erregue, ta Juez justu oni nai daquiola, Gure Provincia Guciz Noble onen buruac bere antcera eguin, ta Miseri- cordiaren balioa ondo ezagutcecobere ar- guiaz zucendu, ta Erri jaquinenetan ani- men oieraco, onelaco Misericordiazco Eche onac jasotcera animatcea. Oietan pobren gorputzetaco alivio icusten danac ezdu cer icusi aien animetan eguiten dan onarequin. Milla bider orietaco misericor- diazco obra espiritual andiac, corporalac baño gueiago balio dute. Ah,

Ah, Jaun prestuac! Misericordia nai det, ta ez sacrificioa, dio gucien Jabeac ta Juezac. Misericordiaren esque dabil Cristo, ta ez beretzat, baicic zuenzat. Matth. 12. Ah ta. cembat anima galdu Misericordiaz irabaztendiran! Orregatic pobreac zuen artean beti, Cristoc dionez izangodituzute. Erri bestecoai bere libertade esquecoa quenduco etzaie. Baña orien artean cembat dabil-tza, ta norc daqui nola, ta cer leguetan? Ez dotrinaric daquiten, ez ezconduac, ala bestelacoac diran, non, da noiz confesatcendiran: Errico, ta Eleizaco buruen quezca, ta oriequin ecin buruatua; ceren batetic bestera iguesca dabilzan. Ta cembat Sacramentu, ta confesio gabe, gaizqui bide orietan illic topatcen dira?

Neque pusca da Errietan orretaraco bide seguruac, edo errentac arquitcea. Alere Misericordiac gucia berdintcendu. Erri ascotan orañ eguitendan limoznaz, cierto da, pobre asco bici dirala. O Jau-nac! Eta cembat ceruco bendicio ugarri, eder, andiac pobrean oracioetatic zuen animetan, eche, ta errietan icusico diran!

Eta ona non Dotrinagai, edo asuntoric bearrrenac esan ditugun: eta Espiritu Santuac, Trentoco Concilioan naidituen gaiac, gaitetic igues eguin ta onari jarraitceco, oieta-ra da-

datoz. Ses. 5. c. 2. Orien berri ematea
Igande, ta Jai andietan: » Diebus saltem
» Dominicis, & Festis solemnibus.. cum
» brevitae, & facilitate, &c.» ascotan, ta
laburcho, ta erraz aditucodan izqueran,
naidu. Noicean beñ Egemplocho bat con-
tatcea, urrezco iltce batequin bezala, Do-
trina gure Euscaldunen biotcetán jositcea
da. Pecatuen contra aserre aldiren bat
iñoiz bear badere, baña gucia peccatarien
amorez, gucia paquez, paciencia, ta espi-
rituco suavidadez beteric, San Pabloc dio-
nez: » Argue, obsecra, increpa in omni
» pacientia, et doctrina. 2. Tim. 4. Instrui-
» te in spiritu lenitatis. Gen. 6. »

Confesore, ta Predicatore Jaunac, Mai-
suac becela, beguien aurrean iduqui-
tcea nai nuque, gure gendecho onac,
aguitz gueienean, virtuteen edertasun, ta
amorez, peccatuen itsustasun, ta gorroto-
az baño, Jaincoagana eracartea, obe dala.
Lenengo bidea seguruago, ta prestuago
baicic ezta: ta virtuteai jarraituaz, obeto,
ta errazago orien contraco peccatuetatic
igues eguitenda; bide onetatic lasterrago,
ta frutu gueiago anima onetan eguin-
godute.

Jaincoaren Doctrina bear dan fede, ta devo-
cioaz esateco, lenagotic ondo pensatu, be-
guiratu, icusitaicasi bear da: eta ori, Latin,
edo

edo Gaztelaniaric munduan ez baliz bezala. Au eguitenduen Euscaldunac, nere contu, Dotrina ondo escribitu, icasí, esan, ta adierazocoduela. Latin, edo Gaztelaniatic Eusquerara biurtu nai bada, ori ondo biurtceco, edo traducio onaren le-gueac gorde bear dira: eta ez itzac berac, ezpada oriec esan nai dutena, edo orien sentidua ondo pisatu, ta Eusqueraz nola ondo esangodan contuz consideratu, ta ori escribitu bear da.

Beste izquerac bezala, gureac ere bere itzaldi egoqui, chit biciac, berezco ta bera-riazco ederrac ditu. Baña Erdarac era bate-ra, ta Eusquerac bestera. Onecera postposi-tivo, ta arc prepositivoan. Esan nai du: Gaz-telaniac betiaurretic dacarrena, Eusquerac azqueneronz beti botatcenduela: eta itzac beren lecuán. Gaztelaniaren contra ifintce orretan Eusqueraren era eder, aire, edo chistegucia dago. Bestela, itzez itz Erdara-tic Euscarara biurtcen badezu chit itsusi, doacabe, edo moldacaitz irtengoda, eta mutillac esan oidutena: «comer aviamos »echo nosotros: bien que está, Padre eta: »á tí la lengua que no te saque pues » Itzez itz biurtcea orra cer dan. Eta edoceñ Lengoagetan orobat da.

Lenago ondo prestatu, ta ere Jaincoaren Itz santua bear dan errespetoaz artcean;
lana dago

dago. Ciceron tristea, lurreco onragatic, bere Erretorica guciaz; ceñ ere zan, ta lenago aleguin guciaz prestaturic ceñ ere cegoen, alere, Erromaco Jaunen aurean itzaldia asitceco, utseguiteco bildurrac beti, berac dionez, artcenzuen. Jaungoicoaren Legue ta Dotrina, Ciceronen eguitecoen aldean, ceñ gauza mea, preciatu, ta andia dan, edoceñec dacus. Latin usia pusca bat duen guizon juiciozcoric norda, Erdaraz, edo Eusqueraz Sermoi bat iracurri, ta beste gabe, Latiñez Pulpituan predicatucoduenic? Itzoro galdu, ta trabucatuco litzaque. Bada Eusquerazco Erretorica berbera da, ta erregla, ta legue berdiñac dira. Pobrechoai eracasi bear zaien Jaunaren Dotrina, ez vanuan, ezpada veneracio g uciaz artceco gauza da.

III. *Dotrina galdetceco, ta esateco modua.*

Dotrinaren puntucho oiec escribitcen nagoela, ill berri triste bat etorri da, edo Sacerdote J. D. Ignacio Iturbe, igaro dan egunean nola ustegabe, ta batbatetan ill otza guelditudan: Jaincoac bere glorian duela. Onec, Villa-erreal-co Vicario zala, Jai egun gucietan Dotrina eguin, edo esplicatu oi zuen, ta chit atseguin andiaz ascotan aditu izan nuen. Onen jarduera santu, edo egercicioa era gucie-

cietara ederra, ta erraza zan, eta onela eguitenzuen.

Eleizan ceuden guciac berarequin batean, belaunico jarri, soseguz boz altuan ciñatu, Contriciozco actua eguin, ta enzunleac esertcen ciran: era onetan bera Pulpituan zutic cegoela, Escolan bezala, ta Paperetic, Cartillaco Oracioac, berac claru esan, ta tonu artan esanaz, guciac eranzun, edo esaten cituzten: Aita G. Ave M. Salvea, Credo, ta Articuloac, Legueco, ta Eleizaco Mandamentu, Sacramentu, ta Misericordiazco obrac. Cer jarduera, edo Practica ederrago, ta bearragoric oriec gucioc, ta contriciozco actua eguitea baño? Orrequin lotsa, ta bildur gabe guciac berdin: chiqui, ta andi, gazte, ta zar, guizon ta andreac, betico esanaz, erdi lotan ba-ceuden ere, nai, ta nai ez bezala, gucia ondo ciequiten.

Egercicio eder onen ondoren, Dotrina-ren puntu berariazco bat berac azaltcen, edo esplicatcen zuen: ez luce, ta ez labur, bere neurri onean; baña bere eusquera claru, egoqui, ta erricoai acomodatu, ta cegoquienean: texto edo latiniac batere gabe, aserre, edo inquietacioric aleric gabe. Ala auditorio gucia, aoac chabalic, chit gustoz, ta devocioz egon oi zan. Au berau eguiten duten beste Artzai onac
ba-

badira. Ojala guciac berdin onela beren Eleizetan eguiten badute. Oriec jaquinde, edo estudio andirice ez iduqui arren, maravilla aundiac orien Paperetic icasico liraque.

IV, *Dotrina galdetceco modua.*

Espiritu Santu, egun oietan etorrizanac gure biotzac emen arguitu, ta bere amorez zucenditzala. Puntu onetan, nola Euscal errietan era edo manera jaquinic, ta gucienzat berdiñic, orañ artean izan eztan, egoquiro itzeguitea erraz ezta. Gure itzaldi, ta izquera gueienetan utseguitendegu: ta orañgoa ezta. S. Agustin bateccion: »Multa improprié loquimur, pauca proprié; intelligitur tamen, quid velimus.» Esan naidu, gauza asco ez egoquiro, taguchi egoquiro, ondo ta bear bezala, esaten ditugula: alere elcar, edo cer esan nai degun aditcen degula. Jaquintasun bere parrereric munduan icusi etzuenac, edo Agustin batec añ umilquiro, ta ederquiro au badio, besteoc cer esan dezaquegu?

A nimen cargudun, edo Dotrinaco Esaminadoreai lastima andia diet: eta gure gende jaquinez gassoquin paciencia zabala bear da, eta au baño ere prudencia andiagoa nai da, pobrechoai chit beren erara galdetu, ta badere bearren dan Dotrina ondo aditcen duten icuste-

co,



co, edo. daquitena nolerebait ateratceco. Ondocho bada, ta suabero artu, ta gauzaric errazen, ta jaquiñenetatic galdet-
cen asi bear da: orrela animatu, ta laster-
ago, ta zucenago, icasi dutena eranzun-
go. esangodute.

Bestela gogorqui, estu, edo chorrotz-
egui artcen badira, lotsatu, bildurtu, ta
ebaquico dira ta gauzonic eguingo ezdu-
te. Ciequiten Dotrina pusca bera ere, nas-
tu, ta oquer, edo gaizqui esango dute: ta
bear dana daquiten, edo ez, orduan, ta or-
rela Esaminadoreac juicioric ecin eguin-
dezaque. Escusatu. bada, arren, Jaunac,
eta gueiñean alde batera, gende itsu gas-
soai ondo ezdatozquien galde, edo pregun-
tac utci: seguru ezdaquizquite, ta orien-
premia, edo jaquin bearric ezdute. Emen
era batera guciai Dotrina galdetceco Erre-
gla laburcho bat, edo Egemplara faltada.

Cura Jaun gucien biotzac Espiritu San-
tuac arguitu, berotu, ta guiatu ditzala,
beren egemplo, ta dotrinaquin anima as-
co salvatze. Amen.

Onen ondoren Liburcho bi laster ate-
raco dira. Bata: » A. S. Ignacio ren Eger-
»cicioen gañean Afectoac, beren Egem-
»plo, ta Dotrinaquin.


Bestea: »Ondo iltcen icasteco, ta ondo
»iltcen laguntceco Egercicioac.

Az-

Azquenic, Jaincoac nai badu, A. Aste-
teren Dotrina Cristiana, edo Cristau Do-
trina, gure Eusquera garbian; baña emen
usatcendan izqueraric jaquiñenean: uste-
ta aleguin guciaz ondo limaturic, eta Pro-
vinciaco, ta Bizcaico gure Euscaldun
onenac, ta Theologiaco Maisu ascoc,
urrezco Librucho oni dagoquion estima-
cioac, chit ondo, ta contuz icusi, ta be-
guiraturic.

Aita MENDIBURU ren zelo andiac Na-
farroaco erara Libru eder provechuzco
asco atera dituen bezala, Jaincoaren On-
tasunari escatcen diot, Bizcaico biotz no-
bleren bati, ango era, ta Dialectoan,
ceruco Dotrina, ta Egemploen Libruac ate-
ratceco, arren argui celoz, ta gogoz bete
bat emandiozala. Alper alperric leiatcea
da: animen oneraco, Bizcaico, Nafarroa-
co, ta Guipuzcoaco iru Dialecto etan es-
cribitcea, guztiz premiazco, ta gauza chit
bearra da. Gure Izquera, beste bien er-
dicoa bezala, Nafarroan, baita Bizcaian
ere gueiena aditcenda, Baña ez Nafarrac
Bizcaicoa, ta ez Bizcaitarrac Nafarrana
aditcen dute: ta bata besteagandic urruti,
ta bacoitza bere bidetic dabill. Jaincoac
guciac zucenditzala bere gloriaraco.
Amen.

TOLOSAN: Eusebio Lopez-en Moldistegian, 1898 garren
Urteco Ustaillaren bederatsigarren egunean.



de las 263 Formas del Verbo empleados en este Librito.

*Mendiburu Larramendi ta Cardaberaz hirurei
Provinciako Heuskaldun isandu siran burubei.*

LIBURUCHU HONEN ERASKITSAKO AURKIBIDEAK:

Berhez ber-ehun ta hirurogoi ta hirur zatiak!

*My compound parts I must distinguish well
And which are acts of which. exactly tell.*

*(Nature Displayed: a Poem by M.^r Collins
sometime Rector of Crayford in Kent. p. 10.
London 1727).*

albaitere 52. Bego 21. Beza 24. Biz 24. Bozu
(=badozu) y ezPo zu 43. ezQuera 36. Da 178 ve-
ces incluyendo bada, baida, ezda y ezpada. Da-
bil y Dabill 27, 56, 63. Dabiltza 56. Dabiltzan
41, 56. Dacar 20, 25. Dacarrela 34. Dacarrena
58. baDacarte 45. Dacartci 46. Dacartcien 11.
Daqui 5, 6, 56. Daquidan 19. Daquiteque 30.
ezDaquienac 33. ezDaquigu 42. baDaquit y
ezDaquit 13, 26, 51. ezDaquite 11, 39. Daqui-
ten 56, 62. Daquitenai 50. Da-
quiola 55. Daquizqui 38. Daquizquiena 46.
ezDaquizquite 62. baDaquizu? 39, y baQuizu?
43. Dacus 13, 20, 34, 59. Dacusuna 9, 18. Da-
cusdana 52. baDacutsu 45. Dago 48, 52, 58, 59.
Dagoquion 37, 63. Dagoela 32. Dagoen 10, 39,
49, 54. Dagozquienac 35. Dagozquion 32. Da-
gozquionac 35. Dala y ezDala 8, 10, 11, 13, 20,
23, 34, 37, 40, 41, 44, 52, 57. Dan, frontis-
picio, 4, 8, 9, 10, 12, 13, 17, 20, 22, 23, 24,
26,

26, 27, 28, 30, 37, 39, 41, 42, 43, 46, 49, 50, 51, 52, 53, 54, 55, 56, 57, 58, 59, 61, 63. Dana 8, 9, 10, 20, 21, 45, 62. Danac 34, 55. Darabillen 32. Darabiltzqui 38. Daramazqui 33, 34. Darraiona 37. Darraizcana 34. Datequean 8, 18, 31. Datequeana 29. Dator 24. Datorrela 23. Datoz 57. ezDatozquien 62. Datozquienac 36. Datozela 40. Datza 45. Daucate 30. Daucatcigun 9. Dedin 5. Degu, baDegu y ezDegu 5, 21, 23, 26, 33, 34, 36, 42, 50, 61. Degula 41, 51, 61. Degun 51, 61. Deguna 5, 18, 54. baDere (=ba-da-ere) 10. 18, 53, 57, 61. Deritza 21. Deritzala 14. Derizte 21, 22. Derizana y Deritzana 24, 34, 39. Deriztenac 4, 39. Det y ezDet 11, 12, 26, 29, 43, 44, 49, 56. baiDetan 31 (plural del nombre compuesto *eztabaida*=no es así! si, es así!) Dezaque 12, 32, 62. Dezaquee 16. Dezaquean 12. Dezaquegu 61. Dezaquet 12. Dezagun 38. Dezatela 18. Dezaten 50. Dezu y baDezu 21, 27, 28, 29, 39, 45, 58. Dezun 29, 54, 55. ezDezuna 54. Dezute 12. Dezuten 17. Die 15. Dien 55. Diena 19. Dienac 16. Diet 37, 61. Diete y ezDiete 17, 18. Diezcate 18. Dieztenac, frontispicio. Digu 6, 42, 51. Dijoa 5. Dijoana 31. baDijoaz 18. Dio y baDio 6, 7, 20, 24, 38, 40, 47, 48, 51, 56, 61. Diogu 16. Dion 15, 25, 33, 37, 49, 55. Diona 28, 34, 52. Dionean 26. Dionez 39, 56, 57, 59. Diodan 49. Diot 44, 63. Diote 23, 25, 37. Diotela 8. Dioten 11, 39. Diotenez 3, 21, 39. Diozala 63. Diozu y baDiozu 29, 38. Dira, baDira y ezDira 8, 9, 11, 13, 16, 17, 18, 19, 22, 23, 25, 26, 27, 28, 29, 31, 32, 33, 35, 36, 37, 39, 40, 45, 46, 47, 48, 53, 56, 58, 59, 61, 62. Dirade 37, 40, 46, 53. Dirala y ezDirala 9, 11, 13, 27,

27, 40, 51, 52, 56: Diran 6, 18, 19, 20, 22, 27, 32, 36, 38, 40, 44, 45, 47, 48, 53, 56. Diranac 22. Diranean 17. Diranen 37. Dirauten 10. Dirudi 27, 28, 29. baDirudite 36. Diruditen 37. Dit 26. Diteque 10, 25, 32, 34, 57. Ditu y baDitu 5, 21, 23, 27, 31, 32, 33, 35, 38, 39, 46, 47, 48, 50, 51, 58. Ditudan 41. Dituela 31, 38. Dituen 26, 30, 52, 56, 63. Dituenac 21, 52. Ditugu y baDitugu? 26, 37, 38. Ditugula 61. Ditugun 56. Ditut 16, 26, 47. Dituzte 8, 13, 16, 18, 26, 51. Dituzun 28. Dituzute 56. Ditzala 30, 61, 62, 63. Ditzatela 37. Dizquigu 10, 50. aldizu? 38, y ezDizu 29. Dizun 55. Dizute 41. Diotela 8. Diotenez 3. Du, baDu y ezDu 51 veces. Duela y ezDuela 34, 41, 51, 58, 59. Duen y ezDuen (no incluyendo Euscaldun, galtzadun, cargudun, jardun y otros adjetivos de igual terminación) 8, 12, 19, 20, 23, 25, 29, 31, 32, 35, 37, 40, 43, 45, 51, 52, 58, 59. Duenac 12, 20, 28, 51, 52. Duenarentazt 20. Duenic 59. Dute, baDute y ezDute 6, 9, 10, 11, 15, 16, 17, 18, 20, 23, 27, 31, 32, 35, 37, 39, 40, 47, 52, 55, 57, 61, 62, 63. Dutela 8, 13, 20, 24, 33. Dutlen y ezDuten 12, 18, 19, 58, 60, 61. Dutena 51, 58, 62. Dutenac 15, 22, 51. Dutenean 18. Eban 44, y Eben 43. Eguian 43. Eutsan 43. Esadazute 44. Ezazu 39. Ezazute 54. Guenduque 13. baGuenequi 13. Guñizquitzuten 32. Goacen 29. Iacan 43. Jaquizu 40. Itzatzu 21, 27. baLego 18. Liraque 61. Liteque 12. Litzaque 19, 22, 52, 59. Litzaquena 54. baLiz, ezbaLiz y ezpaLiz 17, 22, 24, 28, 45, 58. baLu 6. baLute 19. Nagoela 59. Naiz 50. Nau 12, 13. Nembillen 17.

ba-

baNinz 43. Niola 46. Nituen 31. baNoa 43. ba-
 Nu 29. Nuque 29, 57. Nuela 44. Nuen 44, 59.
 ezTa 8, 9, 10, 11, 13, 14, 15, 17, 18, 23, 24, 25,
 26, 29, 31, 57, 61. ezTaquit 9. ezTago 16. ez-
 Tala 30, 43. ezTan 61. ezTegn 30. ezTet 26. ez-
 Tezu 26. ezTu 9, 23, 26, 27, 28, 32, 34, 38. Zaie,
 baZaie y etZaie 17, 19, 56. Zaien 59. Zaio 22,
 46 (El original p. 46 tiene *da*) Zaion 53. Zaite
 43. Zaitzu 29. Zala 6, 7, 8, 46, 50, 59. Zan, ba-
 Zan y etZan 3, 4, 5, 6, 7, 8, 14, 15, 18, 19, 24,
 31, 41, 42, 45, 46, 47, 49, 50, 59, 60. Zana 10.
 Zanaç 61. baZara? 43. baZau? 43. Cebillen 41,
 42. Cebiltzan 49. Cekarren 54. Cequien y ez-
 baCequien 45, 46. Cequiena 46. Cegoela 46,
 60. Cegoen 45, 59. Cegoquenean 60. Cego-
 quion 49. Cera, baCera y etCera 6, 16, 20, 28,
 29. Cetozquionac 42. Ceucan 18. baCeuden 60.
 Cidan 17, 38, 44. Ciequiten y etCiequiten 24,
 60, 62. Cien 4, 32, 44. Cieten 18. Ciezten 7.
 Cigun 4, 45. Ciola 6, 50. Cion 24, 42, 61. Cio-
 ten 31. etCiozcala 46. Ciozcan 30, 41, 42. Cir-
 dela 11. Cirala 7, 24. Ciran y etCiran 7, 21, 30,
 31, 41, 42, 49, 60. Ciranac 4. Ciranean 32, 41.
 Cirudien 29. Citecen 4. Citezquean 30. Citu-
 ban 43. Cituen, baCituen y etCituen 4, 5, 10,
 45, 47, 48, 49. Cituena 3, 14, 18. Cituzten 9,
 15, 21, 32, 60. Cituztenac 21. Citzadan 44. Ci-
 tzaïen 15. Citzaion y Cizaion 41, 42, 45. Ci-
 tzaïten 41. Zuela y etZuela 40, 44, 45. Zuen y
 etZuen 5, 6, 15, 16, 17, 40, 42, 44, 45, 48, 49,
 50, 59, 60. Zuena 4, 14, 36, 44. etZuenac 61.
 Zueneco 41. Zuten y etZuten, 7, 15, 24, 44, 49.
 Zutena 7.

There is many a slip twixt cup and lip.

Un

Un Dialecto Antiteológico.

El poeta de Ochandiano, señor Felipe Arrese ta Beitia me regaló hace tres años un exemplar de un librito intitulado

Cristau-doctrinia jesuita aita Gaspar Astetec erderaz escribidu, ta guero D. Gabriel Menendez de Luárca, canonigo jaunac gauza azcogaz gueitu ebena. Orain Gatzagaco abade jaunac erri onetaco eusquedaran arguitara ataraten dabena: azquedian goixe ta gabeco egunian eguniango cristau cereguiñac, Claret Arzobispo Jaunaren liburuchuac dacardenac, eta Errosarixo santua errezetaco modua erantzita.

VITORIXAN: Ignacio Egañaren Moldeteguixan 1862-
garren urtian

Mr J. Vinson en su Bibliografía no menciona este interesantísimo specimen de un dialecto local. El prólogo de Don J. B. de Alegria es tan curioso que lo pongo aquí con mi versión inglesa.

CRISTAU IRACURLE EUZQUELDUNARI

aurraz berba batzu c, liburucho onetan esribiduta dagoana obeto irácurri eta aittuteco.

4.^a Cristau dotriña au iracurten asi ta beriala esango dozu zeure artian, cristau iracurle maittia, ezlogu gue erri onetan esaten Aittia-
ren,

ren, eta Semiaren, eta Espiritu santuaren ickenian, Jangoicoaren gracia, Espiritu santuaren doyac, Ceruaren eta lurraren criadoria: eta bai Aitien, eta Semien, eta Espiritu santuen ickenian, Jangoicuen gracia, Espiritu santuen doyac, Ceruen eta lurren criadoria: eguixa dioxozu, alaxeda. Baña, nola Aittiaren, eta Semiaren, eta Espiritu santuaren ickenian, Jangoicuaren gracia, Espiritu santuaren doyac, ceruaren eta lurraren criadoria esanaz, edo letraz ifinita, argui ta garbi aiqetan emoten dan Aitta bat bacarra, Seme bat, Espiritu santu bat, Jangoico bat, ceru bat, lur bat dala, guc orduan orrela esanaz, edo escribiduta goguan daucaguna, ta aiqetan emon gura doguna: eta Jangoicuen gracia, Espiritu santuen doyac etc, esanaz, edo escribiduta, elitzaquian ain argui, ta garbi aiqetan emongo Jangoico bat bacarra, edo ez⁽¹⁾ bat baño gueixago, Espiritu santu bat bacarra, edo ez⁽¹⁾ bat baño guexago dan guc orduan goguan daucaguna, edo aiqetan emon gura doguna: orregaitie erraquetaco onie inori ez emotearren, ifintan da cartilla onetan Jangoicuaren, Aittiaren, Semiaren, Espiritu santuaren etc. Baña, baldin esan gura bozu emen esaten dogun les, Jangoicuen gracia, la gracia de Dios, Espiritu santuen doyac, los dones del Espiritu santo, ala dioxozunian aittu ta sinistu biar dozu, Jangoico bacar bat, Espiritu santu bacar bat, dala zuc orduan goguan daucazuna, eta ez bat baño guexago; eta ala aittu azqueró bapere billdurbaric esan daiquezu, Jangoicuen gracia, Espi-

(1) ez oc geratu eztira Vitorixaco argiratzean.

ritu santuen doyac etc. Eguixa da acentua nun ifiñi, edo ezarten jacon berbiari icusi ta igarri leixola (A) bat bacarric, edo bat baño gueixago aiquetan emoten daben berbiac; contu daigun! Acentua badago azquenengosilaban, edo herba azquenian, bat bacarric aiquetan da, eta ez bat baño gueixago, emen les, *Guizonác gorde ditu Jangoicuén legueco mandamentuac, el hombre ha guardado los mandamientos de la ley de Dios; Guizonénburuá, la cabeza del hombre.* Baña acentua herba azquenian ezpadago, eta bai azquen aurrian, edo herba azquena baño lenago emen les, *Guizónac gorde ditueguizónen aguinduac; los hombres han guardado los mandamientos de los hombres, onela esanda, edo letraz ifiñita, orduan guizon bat baño gueixágo aiquetan dá.* Orregaticpe, ezdabaidetaco lecuric ez emotearren, ifiñten da cartilla onetan *Jangoicuaren gracia, Espiritu santuaren doyac, ceruaren eta lurraren Criadoria etc.* Baña esan dana contuan euquita, eta esan dan les aittuta, erraque-taco billdurbaric esan daiquezu *Jangoicuén, Espiritu santuén etc;* cegaiticece onela escribiduta, edo esanda edoceñec aittuco dau Jangoico bat. Espiritu santu bat, eta ez gueixago (1) Beste herba batzuc, naiz ez acenturic ifiñi, argui ta garbi aiquetan emoten danbe bat bacarric dala, eta ez guexao: contu daigun, *Elexien, santien, eguiten dabenen, cegaiticece bat baño*

(A) Emen ifiñi bear da ea.

(1) Baldin ba gura bozu, borrau daiquezu ar guztietan, eta orduan gueratuco jatzu zue gura dozun les, Jangoicuén, Ceruen etc.

gueixao

